

2026-2030eko esparru estrategiko berria**EROSKI-K BERE KONPROMISOAK BERRITU DITU, ETA EREDU
KOOPERATIBOA SENDOTU DU OINARRITZAT HARTURIK
OSASUNA, INGURUNEA, PERTSONAK ETA IRAUNKORTASUNA**

- Kooperatibak gaurkotu egin du 2018an abiatutako errepide mapa estrategikoa, eta osasuna, iraunkortasuna eta lehiakortasuna bateratzen dituen eredu indartu du.
- Esparru berriak bultzada ematen die elikadura osasungarriari, nekazaritzako elikagaien tokiko ehunari eta pertsonen garapenari, eta ingurumenean eragin txikiagoa izatea bilatzen du.
- Gobernantza kooperatiboak balio partekatua sortzeko bidean jarri du bere estrategia, kontsumitzaile eta langile aintzat hartuta.

Elorrio, 2026ko martxoaren 2a. - [EROSKI](#)k "Zurekin ditugun bost konpromiso" berriak aurkeztu ditu, 2018an Osasunaren eta Iraunkortasunaren arloan harturiko 10 konpromisoen eboluzio naturala direnak. 2026-2030eko esparru berri honetarako, kooperatibak gaurkotu egin du bere errepide mapa estrategikoa, eta areagotu egin du bere enpresa eredu osasuna, iraunkortasuna eta balio partekatua bateratzeko duen xedea, oinarri kooperatiboa duen banaketa enpresa izanik hori baita haren izatea.

Konpromiso berriak bost ardatzen bueltan artikulatu ditu, funtsezkoak bere estrategian: elikadura osasungarria sustatzea; tokian-tokian aberastasuna sortzea eta elkartasuna erakustea; langileak gogobetetzea eta haien garapena sustatzea; kontsumitzaileei entzutea eta informatzea; eta ingurumen iraunkortasuna hobetzea.

EROSKI-k aurreko zikloaren balantzea eginda helduko dio berriari: egiturazko aurrerapausoak eman ditu marka propioaren nutrizio soslaiaren hobekuntzan, kontsumitzailea informatzeko sistemak ezarri ditu (besteak beste, Nutri-Score), tokiko produktua eta ekodiseinua bultzatu ditu, janari gutxiago alferrik galdu du eta bere sare komertzialaren efizientzia hobetu du energiaren eta logistikaren alorretan.

"EROSKI-n, kontsumitzaileen kooperatiba garen aldetik, berezkozat ditugu konpromisook. Era berean, aurrerapausoak egin ditugu gure markaren nutrizio soslaian, milaka ikasleren elikadura-heziketan, nekazaritzako elikagaien tokiko ehunean eta gure jarduerak ingurumenean duen eraginean. Aurrerapauso horiek eredu bat erakusten dute, zeinetan uztartu egiten baitira, osasuna, iraunkortasuna eta lehiakortasuna, negozioaren kudeaketa

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko**zuzendaria****Patricia Martín Sanchidrián****Tel: 946 211 214**comunicacion@eroski.es**INCÓGNITO - Prentsa bulegoa****Silvia Peralta****Tel: 917 379 950**

arruntean. Begia 2030ean jarrita, areagotu egin zaigu gizarte osasungarriagoa, informatuagoa eta iraunkoragoa sustatzeko dugun bokazioa”, adierazi du **Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendari eta EROSKI Fundazioaren zuzendari nagusi denak.**

Konpromisoa sendotzen duten emaitzak

Arduratsua izango bada elikadurak, osasungarria eta orekatua ez ezik, iraunkorra ere izan behar du. Gaur egun, nutrizio arloko piramidearekin daude lerrokatuta EROSKIko jan-edanen salmenten %78, eta ehunekoa gorantz doa urtez urte. Emaitza horrek erakusten du nolako lan saiatua egin den produktuen osaera hobetzeko, erreferentziak birformulatzeko eta informazio argi eta gardenaren alde apustu egiteko, horrela errazagoa baita erosketa osasungarriagoa egitea.

Joan den ikasturtean, 213.000 ikaslek hartu zuten parte haurren gizentasunari aurrea hartzeko EROSKI Fundazioak sustatutako heziketa programetan. Era berean, ehunka milaka kontsumitzailek urtero aprobetxatzen dituzte ohitura osasungarriei loturiko informazio eduki, gomendio eta sustapen abantailak, EROSKI Cluben bitartez.

Ingurumenaren atalean, EROSKIk aurrerapauso estrukturala eman du, bere jarduerak eta produktuek sortzen duten inpaktua txikiagoa izan dadin. 2050erako klima neutraltasuna lortzeko helburuarekin lerrokatuta, errepide mapan jaso ditu honako alderdi hauek: dendetako eta plataforma logistikoetako energia eraginkortasuna hobetzea, prozesuak optimizatzea eta jardueraren deskarbonizazio progresiboa egitea. Errepide mapa hori 2025ean indartu zen, hirugarren Lean & Green Izarra eskuratu baitzuen, 2015ean logistika emisioak %35 murriztu zituela egiaztatu zutenetik.

Horretaz gainera, aipatzekoak dira ontzien ekodiseinuari emandako bultzada eta marka propioaren birziklagarritasunean izandako hobekuntza: diseinua berriro zaie 600 erreferentziari baino gehiagori 2020tik hona, palma gantza kendu da marka propietik eta ziurtagiriak lortu dira, jatorri iraunkorra eta animaliarengatik ongizatea bermatzen direla erakusteko. Ekonomia zirkularraren arloan, kooperatibak jarraitzen du prebentzioa indartzen eta janari gaindikinak dohaintzan ematen; 2025eko lehen seihilekoan, esaterako, 10.700 tona janari alferrik ez galtzea lortu da, 43 milioi otorduren parekoa.

Ingurunearen garapen sozial eta ekonomikoa ere funtsezko alderdia da hartuak dituen konpromisoetan. EROSKIk tokian tokiko produktu eskaintza zabala bultzatzen du, batik bat enpresa txiki eta ertainetan, eta familia ekoizleei lagun egiten die, euren prozesuen efizientzia eta iraunkortasuna gero eta hobek izan daitezen. 2025ean, 394 enpresa sartu ziren

Hornitzaileei Lagun Egiteko Programan: formakuntzarako 4.500 ordu baino gehiago jaso zituzten iraunkortasunaren arloan, nekazaritzako elikagaien ehunaren lehiakortasuna indartzeko xedearekin.

Gizarte eragile izateko ardura duenez gero, elkartasunaren alderdiak egiturazkoa izaten jarraitzen du eredu kooperatiboan. 2025ean, Elkartasun Planak 25 milioi euro baino gehiago bideratu zituen xede sozialetara, eta 280.000 lagunek baino gehiagok jaso zuten horren onura 332 erakunderen bitartez. Hala, enpresaren emaitzen zati bat gizartera itzuli zen EROSKI Fundazioaren bitartez.

Hala berean, EROSKI elkarrizketa etengabea da kontsumitzaileekin, haien beharrak zein diren jakiteko eta denda eta harremanetarako kanaletan zerbitzu hobea emateko. Joan den urtean, 475.000 kontsulta ingururi erantzun die, eta %90 baino gehiago ebatzita gelditu ziren; horrek erakusten du sektorean erreferentea dela informazioaren eta bezero arretaren arloan.

"Zurekin ditugun 5 konpromisoak" berrituta, EROSKIk bere bokazioa sendotu du, hau da, lehiakortasuna, osasuna, ingurunea eta iraunkortasuna uztartzea pertsonak erdigunean jartzen dituen eredu kooperatibo bakun batetik.

EROSKiri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.